

Ordizian, 2015 eko martxoaren 26an, UDALBATZARRA elkartu da UDALETXEKO BILKURA-ARETOAN OHIKO BILERA egiteko. Bertan izan dira honako hauek:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Igor Eguren Izagirre jauna.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Edurne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	EAJ taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	EAJ taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	EAJ taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	EAJ taldea
Bittor Bolinaga Alzelai jauna	EAJ taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :

IDAZKARIA:

Unai Rekondo Perez.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aramburu Otegi jn.

Beste BERTARATUAK ETA IRTEERAK

EGUNEKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2015eko otsailaren 26ko udalbatzarran egindako bilkuraren zirriborroa onartzea.
- 2.- Alkatetzako dekretuen berri ematea.



- 3.- Ordiziako Udalaren adierazpen instituzionala espainiako bandera udaletxean jartzearen kontrakoa.
- 4.- 2014ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea
- 5.- 2014an krediturik gabe egindako gastuak 2015eko aurrekontuan sartzea.
- 6.- Plan ekonomiko-finantzarioaren onarpena
- 7.- 2015eko Aurrekontuan, kreditu transferentziak onartzeko proposamena.
- 8.- Ordiziako Hiriguneko trafikoa arautzeko ordenantzari aurkeztutako alegazioei erantzunak. Behin betiko onarpena.
- 9.- Aparkaldi mugatuko eremuak arautzen dituen indarreko Ordenantzaren 3. artikulua aldatzea
- 10.- Ordiziako herritarrek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko dituzten oinarrien hasierako onarpena.
- 11.- Ordizia Zabalik 2015. Merkataritza lokal hutsak ekintzaile berriek irekitzeko diru-laguntzak arautuko dituzten oinarrien hasierako onarpena.

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK

GALDE-ESKEAK

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19.00ak.

AMAIERA ORDUA: 19:55ak.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2015eko otsailaren 26ko udalbatzarrean egindako bilkuraren zirriborroa onartzea

Proposamena

2015eko otsailaren 26ko ohiko deialdian egindako bileraren akta-zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Asenjo in

Esan du 9.orrian Dubreuil jaunak esaten duenean "Le pregunta que si..." ez zuela Dubreuil jaunak esan, Asenjo berak baizik.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0.

Alkate jaunak ondorioz, aipatutako zuzenketa egin ondoren, onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du.

2.- Alkatetzeko dekretuen berri ematea.

2015eko otsailaren 16tik martxoaren 15ra sinatutako dekretuen berri eman da.



Jakinaren gainean.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du.

3.- Ordiziako Udalaren adierazpen instituzionala espainiako bandera udaletxean jartzearen kontrakoa.

Mahai gainean uztea proposatu da EAJ eta BILDUK hurrengo Plenorako adostasun bat lortzeko asmoa dutelako.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0.

Alkate jaunak ondorioz, mahai gainean utzi du puntua.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 4. puntuaren berri eman du:

4.- 2014ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea

Alkateak Berezko Aurrekontuaren likidazioa, "San Jose" Erakunde Autonomoaren Aurrekontuaren likidazioa eta "Herri Antzokia" Erakunde Autonomoaren Aurrekontuaren likidazioa onartu ondoren, Gipuzkoako Toki erakundeetako aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 49.3 artikulua betetzeko, likidazio hauen berri ematen da Osoko Bilkuran:



	Aurrekontuen emaitza	Diruzaintzako aurrezki garbia
Berezko Aurrekontua	523.234,51	654.533,30
"San Jose" Erakunde Aut.	-4.058,62	-13.522,90
"Herri Antzokia" Erak.Aut.	-10.122,72	62.120,40

Kontuan hartuta San Jose Erakunde Autonomoaren Diruzaintza Gerakina negatiboa dela, 2015eko ekarpena neurri horretan haunditu beharko da.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontuhartzaile jn.

Azalpenak eman ditu likidazioaren inguruan eta zuzenketa bat ere egin du. Honela geratu da likidazioa:

Alkateak Berezko Aurrekontuaren likidazioa, "San Jose" Erakunde Autonomoaren Aurrekontuaren likidazioa eta "Herri Antzokia" Erakunde Autonomoaren Aurrekontuaren likidazioa onartu ondoren, Gipuzkoako Toki erakundeetako aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 49.3 artikulua betetzeko, likidazio hauen berri ematen da Osoko Bilkuran:

	Aurrekontuen emaitza	Diruzaintzako aurrezki garbia
Berezko Aurrekontua	523.234,51	654.533,30
"San Jose" Erakunde Aut.	-4.058,62	-40.296,03
"Herri Antzokia" Erak.Aut.	-10.122,72	62.120,40

Kontuan hartuta San Jose Erakunde Autonomoaren Diruzaintza Gerakina negatiboa dela, 2015eko ekarpena neurri horretan haunditu beharko da.

Jakinaren gainean geratu da Udalbatzarra.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



5.- 2014an krediturik gabe egindako gastuak 2015eko aurrekontuan sartzea.

Proposamena

PARTIDA	KONTZEPTUA	EURO
212.111.00.01	Makina eta instalazioen mantentze-lanak. Gobernu Organoak.	
	Ondoan. Tapaki iragazlea (10 m2)	72,60
	Ondoan. Tapaki iragazlea (3 m2)	21,78
	Ondoan. Tapaki iragazlea (6 m2)	43,56
	Ondoan. Tapaki iragazlea (biribilki erdia)	90,75
	Ondoan. Ponpa konpontzea.	992,42
		1.221,11
226.111.00.02	Gobernu Organoen protokolozko harrerak	
	Pottoka Kafetegia. Luncha. Langileak 25 urte 2013	430,00
	Pottoka Kafetegia. Euskal Jaietako Agur afaria	493,90
	Martinez Jatetxea. Gabonetako luntxa	614,50
	Eroski Bidaiak. 3 sorta "La Vida es Bella" 25 urte 2014an	359,70
	Zezipio-Enea. 3 bazkari Asier Mendizabal	185,02
		2.083,12
226.111.00.06	Ekintza soziokulturalak	
	Arteman. 1000 DVD	2.720,50
	Lizarra Grafikak. 500 ahaztuen mindura	4.411,68
		7.132,18
210.222.12.01	Trafikoa kontrolatzeko bide-seinaleen mantenua	
	Mularri. Pintaketak, "tibuoi-hegalak" ipintzea...	3.166,90
		3.166,90
649.222.12.01	Alde zaharrera sartzeko programaren aldaketa	
	Asecs. Zentralita,...	874,35
	Asecs. CCTV sistemaren egokipena	1.076,30
		1.950,65
226.324.00.06	Partaidetza prozesuak	
	Truke. "Hiritarren partaidetza" trptikoaren banaketa.	574,75
		574,75
226.324.00.07	Udal Aldizkaria	
	Truke. Ordizia eginez 17.zka.	3.708,65
		3.708,65
227.324.00.07	Komunikazio hitzarmenak	
	ACV Multimedia. %50 Webgunea	2.438,15
		2.438,15



226.442.10.99	Zaborren zerbitzuko hainbat gastu. Mularri. Altamira 1Ako garaje-sarreretan lanak.	757,49 757,49
212.442.20.01	Kale Garbiketarako instalazioen mantentze-lanak Urlan, S.L. Libragailuaren motorra konpontzea	3.610,28 3.610,28
213.442.20.01	Kalea garbitzeko ibilgailuen materiala Arrizabal. MFH conj. Asp. gurdiaren gurpila. San Eloy. Zorroa soldatu eta kale-garbitzeko makinari ardatz berria ipini. Udalauto. Kale-garbitzeko makinaren filtroak eta olioia.	420,78 75,27 216,97 713,02
221.442.20.99	Kalea garbitzeko material berezia. Sical. Alboko 6 arrabola. Vadrisa. Mopa euskarria.	362,42 127,78 490,20
226.442.20.99	Kale garbiketa. Hainbat gastu. Tximela. Plataforma alokatzea	507,60 507,60
226.451.10.05	Nanomagnetismo kongresua Yuliya. Idazkaritza lanak. Abendua.	1.851,30 1.851,30
226.454.11.99	Herriko jaiak. S.G.A.E. Egile eskubideak. Festak.	1.644,35 1.644,35
623.454.11.04	Musika-ekipoen erosketa. Alonso. Musika-ekipoa mugitzeko karroa.	413,70 413,70
210.511.00.01	Kaleen mantentze-lanak. Goiherriko Tresna. Sasiak garbitzeko makinarekin lanak. Garmendia Tejas. San Bartolomeko zubiko erretena konpontzea.	1.171,28 1.223,96 2.395,24
212.511.00.01	Kaleko Zerbitzuetako makinen, instalazioen eta tresnen mantentze-lanak. Zelaeta. Mailu hidraulikoa konpontzea.	514,55 514,55
481.622.31.01	Azoka bereziak. Transferentziak. Soraluze. Rock kontzertuetan kableak jartzea.	970,42 970,42
	GUZTIRA	36.143,66



Gastu hauek, 2014ko Aurrekontuetan kontabilizatutakoak barne, baliogabeak dira partidetakoa kontsignazioa gainditzen dutelako. 2014 urteko gastuak 2014ko Aurrekontuan kontabilizatu behar dira, baina ezin denez,

2015eko Aurrekontuetan kontabilizatu behar da, nahiz eta legez urteko ekitaldian burututako gastuak soilik sartu behar diren.

Udaleko osoko bilkuraren erabakia behar da 2014ko gastuak 2015eko Aurrekontuan kontabilizatzeko, 2015eko partiden aurrekontu dotazioa handituz edo 2015ean egin beharreko gastuen kredituak murriztuz.

Borondatezko gastuen desbideraketak arduradunek arrazoitu behar dituztela uste dut, eta arrazoiketa zentzuzkoa ez den kasuan, hurrengo urteko gastu-mailan aldaketaren bat egin beharko da, eta beharrezkoa ikusten bada erantzukizun pertsonalak ezarri,

Mantenu-lanetako gastuen desbideraketek erakusten dute egin behar dena hobeto definitu behar dela eta urtean zehar exekuzioaren kontrol handiagoa egin behar dela, gastuak Dekretu bidez onartuz.

Ordizian, 2015eko otsailaren 11n
Kontuhartzailea

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontuhartzaile jn

Esan du hainbat gastu urteko kredituak gainditu dituztela. Legeak agintzen du gastuak bere urtean kontabilizatu behar direla eta beste urte batean egin ahal izateko Pleno honetan onartu behar da.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)



Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- Plan ekonomiko-finantzarioaren onarpena

Proposamena

2014ko Aurrekontua onartu zen Estabilitate Legea urratuz.

Kasu horietan legeak agintzen du Estabilitate egoerara bueltatzeko neurriak hartu behar direla, Plan Ekonomiko- Finantzario bat onartuz.

Kontuhartzaileak, hilabete bat dauka Plan Ekonomiko- Finantzario hori aurkezteko, Aurrekontua behin betiko onartu zenetik kontatuta. Aurrekontua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, urtarrilaren 26an argitaratu zenez, otsailaren 26an aurkeztu beharra zegoen.

Tartean, 2014ko Aurrekontuaren likidazioa egiten ari ginela eta, eta kontuan hartuta Likidazioko datuak beharrezko zirela Plana egiteko, pixka bat atzeratzea egokia ikusi da eta orain aurkezten da Plana.

Prestatutako Plan Ekonomiko- Finantzarioak Gobernu Taldeak jarritako irizpideak kontuan hartuta egina dago eta Kontuhartzaileak, neurri horiek aplikagarriak direla baieztatzen du. Egindako Plana Estabilitate Legea betetzen du.

Akordio proposamena

- Plan Ekonomiko- Finantzarioa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontuhartzaile jn

Azalpenak eman ditu. Dagoen egoera ikusita araudiak Plan hau onartzea eskatzen du egoera normal batera bueltatzeko.

Bozketa



Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

7.- 2015eko Aurrekontuan, kreditu transferentziak onartzeko proposamena.

Proposamena

2015eko Aurrekontua onartu eta gero hainbat behar berri sumatu dira.

Beste aldetik, Oianguko baserriaren egokitze lanak aurrera dijoaztelarik, kreditu soberakina dagoela bermatu da.

Informazio guzti horrekin, Kontuhartzaileak taula bat prestatu du, danera 58.150,00 euro suposatzen duelarik.

Kreditu aldaketak inbertsio kredituak ikutzen ditunez, beharrezkoa de Udalbatzaren onarpena.

AKORDIO PROPOSAMENA

Kreditu transferentzien 4. espedientea onartzea, segidako taularen zehaztapenarekin.

KREDITUEN IGOERA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
601.07.153.00	Agirrebideako seinaletika	2.100,00
601.01.171.10	Barrena parkeko zoruaren asfaltatzea	30.000,00
731.01.231.90	Generadorea	3.450,00
601.01.323.30	Ikastolako patioan resina tratamendua eman	12.100,00
623.02.337.10	Aire girotuaren instalazioa Zentru sozialaren Areto Nagusian	9.000,00
625.01.912.00	Ordiziara sartzeko "Ongi etorri" seinaletika	1.500,00
	GUZTIRA	58.150,00



KREDITUEN MURRIZKETA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
623.02.171.20.2014	Inbertsioak Oiangun	17.310,00
623.04.171.20.2014	Tresneria Oiangurako	8.100,00
625.01.171.20.2014	Altzariak	12.180,00
625.02.171.20.2014	Bulegoko ekipamendua	850,00
622.01.171.20	Oianguko baserriaren konponketa (1go. Solairua)	19.710,00
	GUZTIRA	58.150,00

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Intsausti and.

Azalpenak eman ditu. Esan du Oianguko partidari soberakinak daudela eta beste inbertsio batzuk egiteko erabiliko dela diru hori:

- Agirrebidea.
- Generadorea.
- Barrena parkea asfaltatzeko.
- Ikastolako patioan erretxina tratamendua ematea.
- Zentro Sozialean aire girotua jartzea.
- Ordiziara sartzeko ongi-etorri seinallitika.

Zuzenketak egin eta gero, honela jasota geratu da proposamena:

2015eko Aurrekontua onartu eta gero hainbat behar berri sumatu dira.

Beste alde batetik, Oianguko baserriaren egokitze lanak aurrera doaztelarik, kreditu soberakina dagoela bermatu da.

Informazio horrekin guztiarekin, Kontuhartzaileak taula bat prestatu du, denera 58.150,00 euro suposatzen duelarik.

Kreditu aldaketak inbertsio kredituak ukitzen dituenek, beharrezkoa de Udalbatzaren onarpena.

AKORDIO PROPOSAMENA

Kreditu transferentzien 4. espedientea onartzea, segidako taularen zehaztapenarekin.



KREDITUEN IGOERA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
601.07.153.00	Agirrebideako seinaletika	2.100,00
601.01.171.10	Barrena parkeko zoruaren asfaltatzea	30.000,00
731.01.231.90	Generadorea	3.450,00
601.01.323.30	Ikastolako patioan resina tratamendua eman	19.239,00
623.02.337.10	Aire girotuaren instalazioa Zentru sozialaren Areto Nagusian	9.000,00
625.01.912.00	Ordiziara sartzeko "Ongi etorri" seinaletika	1.500,00
	GUZTIRA	65.289,00

KREDITUEN MURRIZKETA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
623.02.171.20.2014	Inbertsioak Oiangun	17.310,00
623.04.171.20.2014	Tresneria Oiangurako	8.100,00
625.01.171.20.2014	Altzariak	12.180,00
625.02.171.20.2014	Bulegoko ekipamendua	850,00
622.01.171.20	Oianguko baserriaren konponketa (1go. Solairua)	26.849,00
	GUZTIRA	65.289,0

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



8.- Ordiziako Hiriguneko trafikoa arautzeko ordenantzari aurkeztutako alegazioei erantzunak. Behin betiko onarpena.

Proposamena.

AURREKARIAK

2014ko abenduaren 17an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen jendaurreko iragarkia,

Ordiziako Hiriguneko Trafikoa arautzen duen Ordenantza hasierako izaeraz onartzen duen erabakia, eta guztira bi alegazio aurkeztu dira:

-Ana Echeverria Garmendia andreak aurkeztutakoa.

-Estibaliz Ruano Matxain andreak aurkeztutakoa, ORDIZIAN Ordiziako Merkataria, Ostalari eta Zerbitzu enpresen Elkartearen izenean eta haren ordezkari gisa.

AZTERKETA ETA OINARRIAK

A) Ana Echeverria Garmendia andreak aurkeztutako alegazioa.

Aurkeztako alegazioan honako hau eskatzen du: Euskal Herria 2 zk.ko atarira ailegatu behar duen edozein ibilgailuk horretarako aukera izatea.

Horri erantzunez esan behar da Euskal Herria kalea ez dagoela hiriguneko edo gune historikoko eremuaren barruan, eta beraz, ordenantzak ez duela eraginik zonalde horretan, eta bereziki kontuan izan behar da ordenantza honetako trafiko aldaketak izan aurretik ere ezin zela zehaztutako atarian aparkatu.

Aurretik zehaztutako arrazoiak kontuan izanda, aurkeztutako alegazioa baztertzea proposatzen da.

B) ORDIZIANek aurkeztutako alegazioa.

Alegazioan guztira 4 eskaera sartzen dira:

B.1. Arautegi hau ez onartzeko eskaera, oinezkoentzako izango den eremuko inguruetan aparkalekuen arazoari aldeztu aurretik irtenbide bat ematen zaion arte.

Adierazi behar da, eskaera honi erantzunez, ordenantza honen xede bakarra hiriguneko trafikoa arautzea dela, hirigunea inguratzen duen eratzun-eremu osoan eremu urdina dagoela, eta Ordizian ibilgailuen trafikoko azkeneko aldaketan aparkaleku gehiago lortu zirela ordutegi mugatukoak edo mugarik ez dutenak Gudarien Etorbidean.



Beste alde batetik, doakoa den edo ez, eremu urdinean dauden seinaleetan informazio hori falta dela eta, hori ez da ordenantza honetan arautuko; baina aztertuko da gaia eta ondoren Udalak horri dagokion erabakia hartuko du.

B.2. Eremuko merkatarien ibilgailuek eremuko bizilagunen ibilgailuek herrigunean ibiltzeko duten baimen bera izatea.

Horren aurrean azpimarratu behar da ordenantza honen funtsa oinezkoen segurtasuna lehenestea dela bestelako edozein interesen gainetik, eta horregatik mugatu dela merkatarien sarbidea zenbait ordutan, eta horretarako ordenantza honen 3. artikulua arabera oinezkoen eremu izendatu da hirigunea.

Aurrekoari kalterik egin gabe azaldu behar da ordenantza honen 7. artikuluan arautzen direla behin-behineko baimenak edo baimen bereziak, udaltzaingoan eskatzen direnak, eta merkatariak alde aurretik artikulua horretan azaltzen diren egoeran daudela azalduta aukera honetaz balia daitezke.

B.3. Herrigunearen sarreran interfono bat jartzeko, ongi seinaleztatuta eta dagozkion mantentze-lanak dituen; udaltzaingoarekin zuzenean hitz egiteko aukera ematen duena gure bezeroei behin-behineko baimena edo baimen berezia emateko.

Arlo hau ez da arautegi honetan zehaztuko edo arautuko. Aurrekoari kalterik egin gabe, une honetan ez da interfonorik ipintzea aurreikusten.

B.4. Hornitzaileentzako prestatutako zamalanetarako eremuak bezeroek ere erabili ahal izatea horretarako, horrela, hirigunean ibilgailu asko sartzea saihestuko litzateke.

Trafikoko araudiaren arabera, zamalanetarako eremuak, salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuek erabiliko dute soilik.

Bestalde, honi buruz esan behar da ordenantza honek ez duela aldatu zamalanetarako ordutegia.

Azalpeneko zatian agertutako azalpenetan oinarrituta, dagokion organoari ondorengoa aurkezten zaio:

AKORDIO PROPOSAMENA

LEHENA.- Aurkeztutako alegazioak baztertzea, akordio honetan azaldutako arrazoietan oinarrituta.

BIGARRENA.- Ordiziako Hirigunean Trafikoa arautzen duen Ordenantza behin betiko onartzea.

HIRUGARRENA: Testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

LAUGARRENA: Akordio honen berri ematea jendaurrean ipintzeko izapidean alegazioak aurkeztu dituzten pertsoneri eta erakundeei.

BOSGARRENA. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikuluan ezartzen denaren arabera Ordenantza hau indarrean jarriko da akordioa argitaratu eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2 artikuluan ezarritako epea igarotzean.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Asenjo in

Aurretik Ordizian Elkartearekin bildu zirela esan du.

Uste dute lehen bezala oinezkoen lehentasuna ematen jarraitu behar duela Udalak,

Alegazio batzuk egon dira. Batzuek ez diote alde zaharrari erreferentziarik egiten.

Ordizian-ek ere hainbat eskaera egin ditu, batzuk udalari esan ez zaizkionak aurretik. Gainera esan du beste alegazio batzuk aurreko ordenantzan jasotzen ziren gai batzuei buruzkoak direla.

Santamaria in

Kontrako bozka emango dutela esan du batzordean esandakoari jarraiki. Merkatarien alegazioen alde daude. Gainera gaur egun dauden kontrol sistemak baino askoz hobekak daudenean.

Asenjo in

Esan du Beasainen jarri zela kontrol sistema, hemen jartzea erabaki dugu ona delako. EAJ-k Beasainen jarri eta txalotzen du eta hemen ez, agian, hauteskundeak datozelako.

Santamaria in

Erantzun du esanez Beasaingo egoera desberdina dela eta guk lehenagoko ordutegiak defendatzen ditugula eta horiek mantentzea ere bai, merkatariek eskatzen duten bezala. Honengatik baita ere interfonoa eskatzen dutela esan du.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 6 (PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)



Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

9.- Aparkaldi mugatuko eremuak arautzen dituen indarreko Ordenantzaren 3.artikulua aldatzea

Proposamena

Ordenantzaren 3. artikulua zehazten du zein kaletan dagoen aparkaldi mugatua eta zenbat aparkaleku dauden mugatuta. Eremu horietan aparkatzeko ordubeteko gehienezko muga ezarriko da, Garagartza Plazan izan ezik, bertan gehienez ordu erdiko denbora tartean aparkatuta utzi ahal izango da ibilgailua.

Aipatutako Ordenantzaren Bigarren Xedapen Gehigarriaren arabera, osoko bilkuraren akordio bidez eta Ordenantzak aldatzeko tramiteak bideratzeko beharrik ez dagoenez, alde zuzenetik dagozkion txosten teknikoak edukita, dagoeneko zehaztuta dauden kaleetarako aparkaldi mugaturako egunak eta orduak aldatu ahal izango dira.

Halaber, eta prozedura berdinari jarraiki, 3. artikuluan adierazi diren aparkaldi mugatuko bideak aldatu ahal izango dira, gehiagotuz edo murriztuz, eta baita berriro finkatu edo kendu ere.

2015eko martxoak 5eko Zerbitzu Delegazioaren aldeko txostena ikusita Osoko bikurarako gaien Batzordeak honakoa proposatzen du.

AKORDIO PROPOSAMENA

1.- Aparkaldi mugatuko eremuak arautzen dituen indarreko Ordenantzaren 3. artikulua aldatzea, honakoaren arabera:

3. Artikulua

Honakoa dioen tokian:

Bide urdinaren barruan sartutako kale batean ibilgailu bat gehienez ere ordubetera aparkatu ahal izango da. Denbora hori igarota, ezingo da inolaz ere kale horretan bertan aparkatu ibilgailua.

Ondokoak izendatzen dira bide urdinak, Ordenantza honek eragiten dituen legezko aparkalekuak adieraziz:



- 1.- Gudarien Etorbidea (32 plaza, 13 Barandiaran plaza aldera eta 19 Barena parke aldera)
- 2.- Urdaneta kalea (13 aparkaleku 60 minutukoak) + (2 aparkaleku 15 minututakoak)
- 3.- Joan Amezketa kalea (kale osoa)
- 4.- Ordizia kalea (8 plaza)
- 5.- Joseba Rezola etorbidea (22 plaza)
- 6.- Goierri kalea (8 plaza, parkinaren barruan)

Honakoa esan beharko luke:

Bide urdinaren barruan sartutako kale batean ibilgailu bat gehienez ere ordubetera aparkatu ahal izango da. Denbora hori igarota, ezingo da inolaz ere kale horretan bertan aparkatu ibilgailua.

Ondokoak izendatzen dira bide urdinak, Ordenantza honek eragiten dituen legezko aparkalekuak adieraziz:

- 1.- Gudarien Etorbidea (32 plaza, 13 Barandiaran plaza aldera eta 19 Barena parke aldera)
- 2.- Urdaneta kalea (13 aparkaleku 60 minutukoak) + (2 aparkaleku 15 minututakoak)
- 3.- Joan Amezketa kalea (15 aparkaleku)
- 4.- Ordizia kalea (8 plaza)
- 5.- Joseba Rezola etorbidea (22 plaza geltoki inguruan) + (30 minutuko 6 plaza, Goierri kalearen atzealdean, haur parkearen ondoan)
- 6.- Goierri kalea (18 plaza)

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Asenjo jn.

Azalpenak eman ditu. Esan du merkatariak zona urdinak zabaltzea eskatu zietela eta zer-nola hauek zabaltzea. Akordio-proposamenarekin eskatutakoari erantzuna ematen zaiela esan du.

Dubreuil jn

Esan du zenbat plaza eta eremu urdin dauden jakin nahi duela.

Asenjo jn.

Esan du emango diola informazio hori.



Bozketa


Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

10.- Ordiziako herritarrek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko dituzten oinarriak hasieraz onartzea

Proposamena

Ikusirik Udal zerbitzuek Ordiziako herritarrek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko dituzten oinarri berriak prestatu dituztela, kontutan harturik, honako akordio hau onartzea proposatzen zaio organo eskudunari:

AKORDIOA

LEHENENGOA: Ordiziako herritarrek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko dituzten oinarriak hasieraz onartzea, zeinak akordio honen eranskin gisa jasotzen diren.

BIGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea, hogeitahamar laneguneko epean, iradokizun eta erreklamazioak aurkeztu ahal daitezen.

HIRUGARRENA: Iradokizun edo erreklamaziorik aurkezten ez bada, hartutako akordioa behin-betikoz onartuta geratzen dela ulertuko da, Alkate-Lehendakaria akordio hori publikatu eta exekutatzeko ahalmenduta geratko delarik.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn

Jakinarazi du Plenoaren aurretik gauza batzuk aldatzea adostu dutela.



5.1 artikulua ezabatzea.

6.d. artikulua ezabatzea.

13.art. Gaztelerazkoan akatsa dago. "Contribuirá" ipintzen duen tokian "complementaria" ipini behar du.

19.art. "estudiada" esan behar du "resuelta" jartzen duen tokian. Euskarazko bertsioa ere zuzendu.

Aldaketak egin dira.

Bozketa

Zuzenketak egin eta gero, hauek izan dira bozketaren emaitzak:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 1 (PSE-EE (PSOE)1)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

11.- Ordizia zabalik 2015. Lokal komertzial hutsak ekintzaile berrien bitartez diru-laguntzak ematea arautuko dituzten oinarriak hasieraz onartzea.

Proposamena

Ikusirik Udal zerbitzuek Ordiziako Lokal Komertzial hutsak ekintzaile berrien bitartez berreskuratzeko programaren diru-laguntzak ematea arautuko dituzten oinarri berriak prestatu dituztela, kontutan harturik, honako akordio hau onartzea proposatzen zaio organo eskudunari:

AKORDIOA

LEHENENGOA: Ordiziako local komertzial hutsak ekintzaile berrien bitartez diru-laguntzak ematea arautuko dituzten oinarriak hasieraz onartzea, zeinak akordio honen eranskin gisa jasotzen diren.

BIGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea, hogeitahamar laneguneko epean, iradokizun eta erreklamazioak aurkeztu ahal daitezen.

HIRUGARRENA: Iradokizun edo erreklamaziorik aurkezten ez bada, hartutako akordioa behinbetikoz onartuta geratzen dela ulertuko da, Alkate-Lehendakaria akordio hori publikatu eta exekutatzeko ahalmenduta geratko delarik.



Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

5.artikulua ez dagoela ondo erderatuta esan du, beraz, onartzen dena euskarazko bertsioa da. Erderazko bertsioa egoki itzuliko da.

Dubreuil jn.

Esan du p.5.6. paragrafoan, 2. paragrafoan euskara ezinbestekoa dela dioela eta ondorengo esan behar duela: "euskararen presentzia ezinbestekoa dela...".

Alkate jn.

Hori ere zuzenduko dela esan dio.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak hurrengo puntuaren berri eman du, presazko eraz aurkeztu delarik.

Dubreuil jaunak jakinarazi du 29a itzalaldiaren eguna dela eta Udalak ere hori egiteko eskatu zuela. Hori dela eta mozioa presazko bidetik aurkeztu du.

Aurrena, proposamena presazko bidetik sartzea bozkatu da.

Beharrezkoa den gehiengoa: osoa.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Gai-zerrendan sartua geratu da.

Proposamena

12.- Udal talde sozialistak aurkeztutako mozioa Ordiziako Udakak "PLANETAREN ORDUA" kanpainarekin bat egiteko.

JUSTIFIKAZIOA

Beste behin ere, mundu osoko ehundaka milioi pertsonak bat egingo dute ingurumenaren alde egiteko. PLANETAREN ORDUA inoiz antolatu den mobilizazio eta partaidetza kanpaina handiena da. "Planetaren ordua", denek dakizuen moduan, WWFk (Naturarako Mundu-Funtsa) sustatutako mundu mailako ekintza da, eta urtero martxoaren azken larunbatean burutzen da eta borondatez egiten den itzalaldia da. Ekimen horren baitan etxe eta enpresei argiak itzultzeko eskaera egiten zaie eta paratu elektrikoak itzultzeko ordubetez. Ekintza sinboliko honen helburua da gizartearen kontzentzian eragitea eta aldaketa klimatiko antropogenikoaren eta isuri kutsatzaileen aurkako neurriak hartzeko beharra eta energia aurrezteko eta argiaren kutsadura murrizteko beharra ikusaraztea.

PLANETAREN ORDUA kanpaina klima-aldaketaren aurkako borrokan kanpainarik handiena da eta hori udalerrri eta udalen laguntzari esker izan da. Urtero, mundu guztiko hiriek bat egiten dute kanpainarekin beraien monumentu eta eraikin nagusietako argiak itzultzen. 2014an, 150 herrialdetako 7000 hirik baino gehiagok itzuli zituzten beraien monumentu eta eraikin garrantzitsuenetako argiak, eta horrekin guztiarekin mezu argia zabaldu nahi izan dute: keinu txikiak aldaketa handiak ekar ditzakete.

Ordiziako Talde Sozialistaren iritziz GUZTIEK OSATZEN DUGU IRTENBIDEA.

Ordiziako Talde Sozialistari gustatuko litzaiguke, guztiak, banakakoak, enpresak, udalak eta ikastetxeak energiaren erabileran efizienteagoak izatea eta beraiek sortutakoarekin aski izatea eta energia garbiak sustatzea planetan CO2ko isuriak murrizteko.

Beste alde batetik, eta ekimena laister egingo dela kontuan izanda, datorren larunbatean hain zuzen ere, gure ustez oinarri sendoa du proposatzen dugun presazko izaera.

Horregatik guztiagatik udal talde sozialistak Udaleko osoko bilkuran onartzeko ondorengo MOZIOA aurkezten du:



1.- Ordiziako Udalak bat egiten du WWF (Naturarentzako Mundu Funtza) Elkartearen "Planetaren ordua" ekimenarekin eta martxoaren 28an, larunbata, eraikin publikoko argiak itzaltzeko konpromisoa hartzen du 20:30etik 21.30era.

2.- Ordiziako Udalak martxoaren 28an, larunbata, 20:30etik 21:30era eraikin eta etxebizitza partikularretako argiak itzaltzeko gonbidapena egiten die ordiziarrei, klima aldaketaren aurkako borroka egin daitekeela erakusteko.

3.- Horretarako Udal honek akordio eta gonbidapen hau jakinaraziko du Alkatetza Bando baten bidez eta Ordiziako ataritan eta iragarki ofizialetako ohelean ipiniko du. Honekin batera udalerrri eremuetako komunikabideetan zabalduko du prentsa-oharren bitartez.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0.

Alkate jaunak ondorioz onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

13.- Eskaerak eta galderak

Ez dago.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, idazkariak egiaztatzen dut.